

EKINTZA HUMANITARIOARI BURUZKO LAN-DOKUMENTUAK

5. zk.

“Kontu-ematea ekintza humanitarioan”

Aurkezpena

“Kontu-ematea ekintza humanitarioan” lan-dokumentua aurkezten dizuegu. Ekintza humanitarioari buruzko bilduma osatzen duten bost koadernoetako bosgarrena da. Kontu-emateaz gain, ekintza humanitarioaren gaur egungo erronkak eta joerak, kontzeptua eta mugak, hura inplementatzen duten eragileak, eta zeharkakoak eta ikuspegiak lantzen dira.

Dokumentu hauetan, erakunde humanitarioek, emaileek, erakundeek eta ikerketa-komunitateak nazioarteko elkartasunaren eremu horretan eraginkortasuna eta kontu-ematea hobetzeko gaur egun dituzten erronkak eta eztabaida nagusiak daude bilduta.

Gainera, baliagarriak dira Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziak (GLEA) 2017an abian jarritako Ekintza Humanitarioaren Estrategia lantzeko prozesurako. Estrategia horren azken helburua erronka horiei beren ezaugarriak eta ahalmenak kontuan hartuta erantzutea da.

Dokumentuak Hegoa, Nazioarteko Lankidetzaren eta Garapenerari buruzko Ikasketa Institutuko (UPV/EHU) ikertzaile Karlos Pérez de Armiñoren koordinaziopean landu dira. Bosgarren zenbaki honen egileak IECAH-Gatazkei eta Ekintza Humanitarioari buruzko Ikerketa Institutuko Francisco Rey Marcos, Alicia Pérez Daza eta Camille Nussbaum eta Hegoako Karlos Pérez de Armiño dira.

Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziak ez du zertan bat etorri lan honetan adierazitako iritziekin.

Dokumentu honek Creative Commons erakundearen lizentzia dauka. Lan hau askatasun osoz kopiatzeko, banatzeko eta jendaurrean jakinarazteko baimena ematen da, betiere haren egilea aipatzen bada eta merkataritza-helburuetarako erabiltzen ez bada. Ezin da lan hau aldatu, eraldatu edo lan honetatik eratorritako beste lan bat sortu.

Lizentzia osoa: <http://creativecommons.org/licenses/by-nc-nd/3.0/es/>

Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzia
Agencia Vasca de Cooperación para el Desarrollo

Vitoria-Gasteiz, 2017ko abendua

KONTU-EMATEA EKINTZA HUMANITARIOAN

1. Kontu-ematea: esparru orokorra

Garapenerako Laguntzaren Eraginkortasunari buruzko Pariseko Deklaraziotik (2005), Accraren Ekintza Programara¹ (2008) eta Garapenerako Lankidetzaren Eraginkorrerako Busango Aliantzara² (2011), kontu-emateak eta gardentasunak gero eta garrantzi handiagoa izan dute garapenerako nazioarteko agendan. Haien guztien helburuen artean laguntzaren kalitatearentz aurrerapausoak ematea zegoen, baina Busanen ibilbide horrek funtsezko zentzua hartu zuen, eta horregatik Garapenerako Lankidetzaren Eraginkorrerako Munduko Aliantza sortu zen. Bertan ezarri zen beharrezkoa zela kontu-ematerako mekanismo sendoa eta aldi berean malgua eduki behar zela mundu mailan. Xede horrekin, nazioarte mailan jarraipen-tresna trinkoak sortzea proposatu zen, ondoren estatu mailan egokituz³.

Ekintza humanitarioaren eremuan, kalitatearekiko eta kontu-ematearekiko kezka, hasieratik esparru etikoan kontuan hartzen bazen ere, garrantzi berezia hartu zuen Ruandako genozidioaren eta horrek sortu zuen nazioarteko erantzunaren ondoren, zeina ondoren ebaluatu eta modu nabarmenean eztabaidatu zen.

Elementu horiekin atze-oihal modura, historian zehar hainbat ekimen sortu eta bilakatu dira, gaur egungo unera iritsi arte, non kontu-ematerako mekanismorik gabeko ekintza humanitario bat pentsaezina den, baina kontzeptu honek dakarzkina inplikazioen multzoa xehatu eta estaltzeko bidea oraindik luzea da eta "ekosistema" humanitaria osatzen duten eragile guztien ahalegina behar du.

1.1. Kontu-ematerako eta gardentasunerako kezka handitzearen arrazoia

Ekintza humanitaria garatzen den testuinguruaren ezaugarriak erabat orokortu ezin diren arren, hainbat alderdi komun izan ohi dituzte kontu-ematerako mekanismoak sortzeko beharrezko garrantzi goreneko leku batera igotzen dutena, zentzu zabalean, jardunen kalitatea bermatzeko. Beharrezko hori moralki nahiz operazionalki da funtsezkoa.

Ohiko izaeraz, ekintza humanitaria bilduta dagoen testuinguruak honako ezaugarri hauek dituzte:

- Ezegonkortasun ekonomiko, sozial eta politikoa, batez ere gatazka armatuetan edo barne-indarkeriako tasa handiak dituzten herrialdetan.
- Beren betebeharrak betetzen ez dituzten estatuak, hala erantzukizunei aurre ez egiteagatik nola beren gaitasunak gaintzeagatik.
- Testuinguruaren arabera, nazioarteko eragile ugari, hainbat kasutan gehiegi direlako eta beste batzuetan ez delako "ia inor iristen".

¹ Biak eskura honako helbide honetan: <http://www.oecd.org/dac/effectiveness/34580968.pdf>

² Eskura honako helbide honetan: <http://www.oecd.org/dac/effectiveness/49650200.pdf>

³ Oxfam Intermon (2012). "Busango gakoak: Garapenerako Lankidetzaren Eraginkorrerako Munduko Aliantzaren hurrengo urratsak". https://www.oxfamintermon.org/sites/default/files/documentos/files/Informe_oxfam_busan_eficacia_ayuda_cooperacion.pdf

"Tradizionaltzat" jo daitezkeen alderdi horiekin batera, egun berriagoak diren eta sektore humanitarioa beti definitu duten eta aldaketak nabarmenak eragiten ari diren beste batzuk daude:

- Pertsonak aurre egin beharreko mehatxuen gehikuntza, hala "natural" gisa kalifikatzen direnak, gatazka armatuak, non biztanle zibilak erasoen xede bereizgabea diren, edo "beste indarkeria-egoera batzuk" deitutakoak, gerra baten berezko indarkeria-mailak gainditzen dituztenak eta antzeko ondorio humanitarioak dituztenak.
- Eragile humanitario hutsak ez direnen inkorporazioa, adibidez herrialde emaile berriak edo enpresak.
- Migrazio-fenomenoa, eta hori kudeatzeko ezintasuna dagoela edo borondate politikorik ez dagoela egiaztatzea, gaindituta dagoen esparru juridiko bati batuz.

Konplexutasuna, ezegonkortasuna eta eragile ugari nagusi diren esparru horiek, beti sektore humanitarioaren bereizgarri izan den autokritika tradizionalari batuz, tresna argiak eta komunak garatzea beharrezko egiten dute kalitaterantz aurrerapausoak emateko, non kontu-ematea funtsezkoa den.

Sektorea ohartu da, gutxienez partzialki, egungo erantzun-sistemarekin herritarren premiak ez direla betetzen, eta are gutxiago oraindik, euren oinarrizkoenak diren eskubideak ez direla bermatzen:


1.2. Funtsezko hainbat kontzeptu

Kontu-emateari lotuta dauden eta nahitaez ezagutu behar diren hainbat kontzeptu daude, kontu-emate eraginkorra egiteko beharrezkoak direnak, baina ez dira nahikoak.

Eremu humanitarioan gai horiei lotuta erreferentziazkoa den erakundeak, ALNAP⁴, honela definitzen du **kontu-ematea**: prozesu bat da, zeinaren bitartez esku-hartze baten erantzukizuna eta hura interesatuta dauden alderdiei justifikatzea bere gain hartzen den, esku-hartzeak eraginpean hartzen dituen pertsonak, finantzatzen dituztenak eta beste eragile humanitario batzuk barne.

Definizio horretan bi alderdi nabarmentzen dira, erakunde humanitarioek askotan aintzat hartzen ez dituztenak, eta erantzukizun nagusitzat finantzatzaileei ekonomikoki justifikatzea jotzen dutenez justifikazio hori kontu-ematearekin identifikatzen dute. **Esku-hartzearen erantzukizuna bere gain hartzea** eta kontu-ematea **interesatutako alderdi guztientzat** izatea dira, bereziki kontuan izanik eraginpeko herritarrak, kontu-ematerako mekanismoetan tradizionalki ahaztuta utzi izan dena.

⁴ Epigrafe honetan sartutako definizio guztiak Ekintza Humanitarioaren Ebaluaziorako Gida Pilotutik (ALNAP, 2013) atera dira. <https://www.alnap.org/system/files/content/resource/files/main/eha-pilot-alnap-2013-es.pdf>



Gardentasuna: Ekintza humanitarioko funtsak eraginpeko herritarren beharrezkoan arabera esleitzeko beharrezkoa da ekintza humanitarioan lan egiten duten gobernu eta agentzien finantzaketa-lehentasunean buruzko datu argiak, benetakoak eta eguneratuak izatea. Tradizionalki, baina gaur egun oraindik ere, horrelako informazioaren eskuragarritasuna ez da erraza, ekintza humanitarioaren nazioarteko sistema osatzen duten eragileak modu gutxi asko eraginkor eta integralean ahalegindu arren.

Gardentasuna lehen betekizunetako bat da eskubideen titularrek euren eskubideak exijitzeko eta ekintza humanitarioan lan egiten duten estatu, nazioarteko agentzia eta erakundeei erantzukizunak erreklamatu ahal izateko tresna argiak izan ditzaten.

Ildo horretan nazioarte-mailan aurrerapausoak ematen ahalegindu diren ekimenen artean, IATI⁵ (International Aid Transparency Initiative) ekimena nabarmentzen da, hots, laguntzaren efikazia hobetu nahi duen gardentasuneko ekimen boluntarioa.

Kalitatea: Ekintza humanitarioa garatzen den testuinguruei dagokienez lehendik zerrendatu ditugun ezaugarriak kontuan izanik, kalitatea da sektorea beti kezkatu duen alderdi bat, eta horretarako ekimen desberdin asko garatu dira, gai espezifiko jakin batean edota kalitatearen kudeaketaren alderdi jakin batean (giza baliabideak, beharrezkoak identifikatzea, eta abar) oinarrituz. Ekimen horien bilakaera krisi humanitario handi eta ugarien eta nazioartean krisi horiei emandako erantzunaren ondorio izan da.

Gaur egun, ekimen nagusia **Funtsezko Arau Humanitarioa** da, 3. atalean aztertuko duguna.

⁵ <https://www.aidtransparency.net/>

Ikaskuntza: Prozesu horren bitartez esperientziek eta hausnarketak portaeran eta trebetasun berrien eskuratzean aldaketak sortzen dituzte.

Sektore humanitarioa, hura garatzen den testuinguruak bezalaxe, dinamikoa eta konplexua da. Ezaugarri horiek beharrezko egiten dute ebidentzietan oinarritutako ikaskuntza (hala norberak edo beste erakunde batzuek lehendik egindako errakuntzena, aurretiazko ebaluazioena, monitorizazio-sistemena, jardunbide onen sistematizazioena eta beste batzuen) erakundeetan modu estrategikoan ezartzea.

Ikaskuntza horrek erakundeetan eta, oro har, sistema humanitarioan aldaketetara egokitu beharra dakar; sistema humanitarioak une honetan horri lotutako nolabaiteko interesa azaltzen du, baina iraganean ez du funtsezko aldaketarik egin nahi izan.

Ebaluazioa: Hainbat definizio daude, baina honako hau azpimarratu nahi dugu: jardun bati buruzko azterketa sistematiko eta objektiboa, ondorioak atera nahi dituen hala politika nola praktika hobetzeko, baita kontu-ematea areagotzeko ere.


Jarraipena: Datuak bildu eta aztertzeko etengabeko prozesua, proiektu, programa edo politika bat aurreikusitako emaitzak zein neurritan lortzen ari den eta nola betearazten ari den aztertzeko.

Ebaluazioa eta jarraipena kontu-ematea hobetzeko funtsezko elementuak dira, jarraipen- eta ebaluazio-sistema egokirik izan gabe gure lanaren eragina identifikatzea zaila izango baita.

2. Kontu-ematea eremu humanitarioan

2.1. Jatorria

Ikusi dugun bezala, kontu-ematearekiko interesa ez da eremu humanitarioarena soilik, izan ere, garapenerako eta ekintza humanitariorako eragileek euren emaitzak partekatze ahaleginen testuinguru zabalago baten zati baita. Eremu humanitarioan garrantzia hartu du sektoreak porrot handien ondoren autokritika egin duelako eta emaitzek eta, gizarteak oro har, presio handia egin dutelako.



Porrot handiak

Esan ohi da eremu humanitarioan Ruandako 1994ko genozidioaren ondorengo egoera inflexio-puntu nagusia izan zela eragile nagusiek euren jarduteko moduak berraztertzeko eta hainbat mekanismo martxan jartzeko, eraginpeko biztanleekiko errespetua eta haiekiko eragin positiboak bermatzeko. Ahalegin horietako askoren oinarria, zalantzarik gabe, DANIDA buru zuen JEEAR⁶ “multiagentzia-ebaluazioa” izan zen, zeinaren azken emaitzak 1996an argitaratu ziren. Hori izan zen azterlan espezifiko batean ekintza humanitaria eta bere eraginak ebaluatzeko eskala handian egin zen lehen ahalegina. Bertan ateratako ondorio askoren zorrotasunak agerian utzi zuen kalitatea kudeatzeko eta kontuak emateko mekanismo sendoak edukitzea beharrezkoa dela, hala emaleei nola eraginpeko biztanleei begira.

Ariketa hori 90eko hamarkadako bigarren erdialdean eremu humanitarioan agertu ziren kalitateko eta kontu-emateko ekimenak deitutako (**Q&A o Quality & Accountability**, ingelesez) askoren abiapuntua izan zen. Horixe da Esfera Proiektuaren People In Aid kodearen kasua, COMPAS Calidad metodoaren kasua, eta erantzunen kalitatearen

⁶ Joint Evaluation of Emergency Assistance to Rwanda, Ver: John Eriksson (1996) The International Response to Conflict and Genocide: Lessons from the Rwanda Experience, Synthesis Report.

hobekuntza eta ziurtapena oinarri duten beste ekimen askorena. Bereziki azpimarratu behar da horiek agertzen joan ziren neurrian ekintza humanitarioaren kalitate orokorraren eta kontuak eman behar izanaren arteko funtsezko lotura azpimarratzen duen **Q&A** izena sendotu egin zela.

Herritarren exijentzia

Sektore humanitarioaren autokritikaz haraindi, ildo horretan egindako aurrerapenak beste eragile batzuen, eta bereziki herritarren, exijentzia handiagoaren emaitza ere badira. Aldaketa hori azaltzeko hainbat alderdi aipatu behar dira:

- Lehenik eta behin, 90eko hamarkadaz geroztik hondamendi- edo krisi-kasuetan esku hartzeko **eskura dauden baliabideen hazkunde**-testuinguru batean gertatu da. Mugimendu horren ondorioz ekintza gehiago egin dira, kasu askotan gero eta handiagoak eta gero eta osagai sofistikatuagoekin. Ildo horretan, argi geratu zen agentziek mekanismoak behar zituztela herritarren, enpresen edo administrazio publikoen laguntzari esker lortutako emaitzak aurkezteko. Zalantzarik gabe, azken horiek egindako presioa garrantzi bereziko faktorea izan da mekanismo formalen inplementazioan, horiek oro har finantza-alderditan oinarritu diren arren.
- Azkenaldi honetan, **baliabideen geldialdi-testuinguruan**, erakunde publikoek kontu-emateari lotuta dauden gero eta alderdi gehiago gaineratzeko joera dute lortu dituzten emaitzak jendearen aurrean justifikatzeko. Horren ondorioetako bat *value for money* bezalako kontzeptuak gero eta gehiago erabiltzea da, esleitutako diruaren "errentagarritasuna" justifikatzeko, edota gizartearen aurrean edo *taxpayers*⁷ deitutakoen aurrean justifikatu beharra.
- Eremu humanitarioan, beharizan hori handitu egin izan da esku-hartze gehien **izaera mediatikoarengatik** eta horrek eragin ditzakeen presioengatik.
- Azkenik, GKE eta agentzien **praktika txarrek** sortutako eskandaluen agerpenak, puntualak izan diren arren, sektorearen irudi positiboari kalte handia eragin dio eta kontrol, gardentasun eta kontu-ematerako mekanismoak edukitzearen garrantzia frogatu du.

2.2. Berezitasunak eta enfasia

Tradizionalki, kontu-ematea proiektuak eta programa humanitarioak finantzatzen dituzten emaileei edo, neurri txikiagoan, dohaintza horien sorkuntzan dauden gizarteei zuzendutako ariketatzat hartu da. Horren arrazoia izan da, ikusi dugunez, emaileek beraiek kontu-ematerako mekanismoen inplementazioan rol protagonista izan dutela, eta era berean baliabide ekonomikoetan erabat oinarritutako ikuspegia izan dutela. Hala eta guztiz ere, aipatu dugun sektorearen bilakaera horretan gero eta argiago geratu da laguntza eta babesa eman nahi zaien eraginpeko biztanleekin ezarritako harremanean alderdi protagonista gisa ekin behar zaiola kontu-emateari.

⁷ Ikus adibidez: Six reasons taxpayers can be proud of UK aid, 2016ko martxoaren 30, The Guardian.

Zeregin hori, egia esan, funtsezkoa da eraginpeko biztanleen eta agentzia humanitarioen (emaileak eta inplementatzaileak) artean erabaki-hartzerako eta proiektuen eta programen kalitatea ebaluatzeko dagoen botere-desoreka oso handia dela kontuan izanik.

Enpresa-eremuan kalitatearen zati handi bat "bezeroaren" arabera definitzen da, kontuan izan beharreko kalitate-irizpideen erreferentea (nahi duena edo/era atsegin duena) eta produktu bat beste bat baino gehiago aukera dezan informazioa eman behar zaion solaskide den heinean. Sektore humanitarioan 90eko hamarkadan egindako hausnarketek agerian utzi zuten testuinguru horretan kontzeptuak beste errealitate batera egokitu behar zirela. Hori batez ere agentzia humanitarioek "bezero" gisa duten dualtasunaren ondorio da:

- Alde batetik identifika daiteke proiektu jakin baten **onuradun** gisa, kasu askotan laguntza ematen dion erakundea aukeratu ezin duena eta/edo jasotzen duen laguntza motan protagonista gisa eraginik ez duena;
- Bestetik, **emailea** izango da, proiektua egin dadin uzten duena (erakunde publiko bat, enpresa bat eta/edo pertsonak izan daitezke). Kasu honetan, ikusi dugu sustatzen diren irizpideek finantza-logika baten eragina izateko joera dutela.

Eskema honetan **bi kolektiboekiko kontu-ematea tresna bat da, bion arteko botere-erlazioa orekatzeko** eta eraginpeko herriei parte-hartze handiagoa sustatu beharko zukeen informazio baliagarria emateko. Emaileen aldetik, era berean, mekanismo eraginkorra da eraginpeko herriak protagonista gisa aintzat hartzen dituzten eta hobetzeko ematen dituzten iradokizunak onartzen dituzten erakundeei babesa emateko.

2.3. Ekimen garrantzitsuenen bilakaera

90eko hamarkadaren erdialdean sortu ziren hainbat Q&A ekimenek eraginpeko herriekiko kontu-ematearen funtsezko zeregin hori identifikatu zuten.

1996an argitaratu zen JEEAR txostenak gomendatu zuen nazioarte mailan "herriaren defendatzaile humanitarioaren" irudia sortzea, agintaritza independente baten aurrean agentzia humanitarioaren lanari buruzko kexak aurkezteko sistema bat ezartzeko xedez. Urtebete geroago, horren ondorioz agentzia britainiarrek **Ombudsman Humanitarioaren Proiektua** garatu zuten. Irudi hori azkenean ez zen ezarri, baina proiektuan zehar egindako hausnarketek beste erakunde bat sortzea ahalbidetu zuten: *Humanitarian Accountability Partnership (HAP) International*.

HAP International 2003. urtean sortu zen, krisiak eraginpean hartutako pertsonen kontu-emate handiagoa bermatzeko konpromisoa hartu zuten hainbat erakunde humanitario eta garapenerakoak elkartzeko. Horretarako kontu-ematearen eta kalitate-kudeaketaren alorreko Arauak garatu zituen, erroreak, abusuak eta ustelkeria jasateko aukera murriztea ahalbidetzen zuten mekanismoei protagonismo berezia emanez. HAP, era berean, auditorien bitartez bermatutako zigilu batekin martxan jarri zuen ziurtapen-sistema batengatik nabarmendu zen.

3. Joera berriak: kontu-ematea Funtsezko Arau Humanitarioan eta Grand Bargain

Azken urteetan antzeko ikuspegiak edo ikuspegi osagarriak dituzten beste kalitate-ekimen batzuk agertu dira, 2. kapituluaren hasierako ilustrazioan ikusi dugun bezala. Hainbeste tresna desberdinen garapenak erronka berriak planteatu dizkie eragile humanitarioei. Nola

erabil daitezke tresna horiek elkarrekin? Konparagarriak al dira planteatzen dituzten terminoak (adierazleak, arauak, irizpideak eta abar)? Nola egin dezakegu lan beste eragile batzuekin beste tresna batzuk erabiltzen badituzte?

3.1. Funtsezko Arau Humanitarioa

Panorama horretan Funtsezko Arau Humanitarioa (Core Humanitarian Standard, CHS, ingelesezko siglengatik) aurrerapauso handia izan zen eremu humanitarioarentzat. Sektoreak hainbat urtez egindako lan komunaren emaitza da, eta nahiko laburra den testu batean (20 orri baino gutxiago) gauzatzen da, lan humanitarioa definitzeko funtsezko oinarriak 9 konpromisoren bitartez ezartzen dituena kalitatea bermatzeko.

Kontu-ematearen alorrean, Arauak agentzien artean hizkuntza komuna planteatzeko aukera ematen du.

3.1.1. Funtsezko Arau Humanitarioaren egitura

Tresna berri hori, erakundeek eremu humanitarioaren espezifikotasunak errespetatuz kalitatearekin lan egiteko kontuan izan beharko dituzten dimentsiotan fokalizatutako 9 konpromisoren inguruan egituratzen da.

Azpinarratzekoa da konpromiso horietako batzuk erakundeek eraginpeko herriei bermatu behar dizkieten botere eta parte-hartzean oinarritzen direla espezifikoki, adibidez 4. eta 5. konpromisoak.



- **Konpromisoak eta kalitate-irizpideak**

Bosgarren **konpromisoaren** adibidea hartzen badugu, honako era honetan formulatzen dela ikus dezakegu: "Krisi humanitarioek eraginpean hartutako komunitate eta pertsonak mekanismo seguruak eta azkarrak eskura ditzakete kexak kudeatzeko." Konpromisoaren ebaluazioa eta monitorizatzea errazteko, ondoren **kalitate-irizpide** bat formulatzen da, kasu honetan "kexak ondo hartzen eta kudeatzen dira."

Ondorengo bi atalek konpromisoaren betetzeari jarraipena ematea ahalbidetuko duten adierazleak biltzen dituzte, hots, **erakundearen funtsezko ekintzak eta erantzukizunak**.

- **Funtsezko Ekintzak**

Lehenik eta behin, erakundea konpromisoa betetzen lan egiten ari dela bermatzeko planteatu beharko diren hainbat funtsezko ekintza formulatzen dira. Kasu honetan, hiru izango lirateke:

5.1. Krisi humanitarioek eraginpean hartutako komunitate eta pertsonen kontsultatzea kexak kudeatzeko prozesuen diseinua, betearazpena eta jarraipena.

5.2. Kexak jaso eta onartzea, baita dagokion mekanismoa lortzeko moduari eta lantzen dituen gaien nondik norakoari buruzko informazioa ematea.

5.3. Kexak modu bidezko, zuzen eta egokian kudeatzea, erreklamatzeko dutenen eta etapa guztietan eraginpean egon direnen segurtasunari lehentasuna emanez.

- **Erakundearen erantzukizunak**

Osagarri gisa, erakundeak konpromisoa betetzeko dituen erantzukizunak zerrendatzen dira. Kasu honetan, honako hauek dira:

5.4. Krisi humanitarioek eraginpean hartutako komunitate eta pertsonentzako kexak kudeatzeko prozesu bat dago eta erregistratzen da. Prozesuak programazioa, esplotazioa eta sexu-abusua barnean hartu beharko lituzke, baita beste botere-abusu batzuk ere.

5.5. Erakundearen kultura bat dago, non kexak serio hartzeko diren eta dagoeneko definituta dauden politika eta prozesuen arabera neurri egokiak hartzen diren.

5.6. Krisi humanitarioek eraginpean hartutako komunitate eta pertsonak erabat jabetzen dira langile humanitarioengandik espero den portaeraz, erakundeak esplotazioaren eta sexu-abusuaren prebentzioarekin duen konpromisoa barne.

5.7. Erakundearen eremuaren barnean sartzen ez diren kexak dagozkion instantzietara bidaltzen dira jardunbide egokiei jarraikiz.

Adibide honen bitartez ikusten dugu Arauak erreferentzia-esparru osoa eskaintzen duela kontu-ematerako, lan humanitarioaren ikuspegi holistikoa planteatuz oso zehatzak eta ekintza humanitarioaren kalitaterako oso garrantzitsuak diren alderdien bitartez. 9 dimentsio horietako bakoitza, gainera, lurraldearen eta egoitzaren ikuspegi bikoitzetik formulatzen da, proiektuen zati izan beharko zuketuen oso ekintza zehatzekin, baina era berean, formulatu behar diren erakunde-konpromisoekin (adibidez, erakundearen estrategia biltzen duten politika eta dokumentuen bitartez).

3.1.2. Egiaztapen-mekanismoa

Orain arte garatutako kalitate eta kontu-emateari buruzko ekimenen panoraman, Arauak era berean hobekuntza bat planteatzen du barnean hartzen dituen egiaztapen-mekanismoei esker. Diseinatzerakoan, betetzen direla frogatzeko tresna sendoak daudela bermatu nahi izan da. Araua garatu eta hedatzeaz arduratzen den erakundeak, CHS Alliance⁸, hainbat modalitate aurreikusten ditu bere egiaztapen-eskemaren bitartez, hots, egiaztapen-prozesuaren politika eta arauak ezartzen dituen dokumentua, parte hartzen duten erakunde guztientzat modu zuzen eta sendoan egiten dela ziurtatzeko. Beraz, lau aukera daude egiaztapenerako:

- Lehenengoa **auto-ebaluazioa** da, barnean bultzatzen den prozesu bat, non erakunde batek bere burua ebaluatzen duen **Egiaztapen Esparruko** adierazleei dagokienez, bere egungo politikak, sistemak eta jardunak CHSren Konpromisoekin zein neurritan bat datozen ikusten. CHSren auto-ebaluazioak dokumentuen berrikuspena hartzen du barnean, baita langileekin, krisiak eraginpean hartutako komunitate eta pertsonekin eta erakunde bazkideekin egindako elkarrizketak ere. Auto-ebaluazioak erakundeko langileek edota kanpoko aholkularitza-enpresa batek egin ditzakete.

- **Bikotekako ebaluazioa**, euren bikotekide batek (CHSan inplikaturako beste erakunde batzuk) CHS inplementatuz aurrerapen frogagarria eta ebaluagarria lortzen ari dela bermatzea nahi duten erakundeei zuzendua. Erakunde bazkide horrek egingo ditu ebaluazio-jarduerak, adibidez dokumentuen berrikuspena eta langileekin, eraginpeko komunitateekin eta erakunde bazkideekin egindako elkarrizketak.

- **Egiaztapen independentea** CHSren inplementazioan aurrerapausoak ematen ari direla segurtasun-maila gehigarria nahi duten erakundeei bideratuta dago. Auto-ebaluazioaren eta bikotekako ebaluazioaren adierazle berdinak erabiltzen ditu, eta zuzeneko interesdun nagusien (bereziki krisiak eraginpean hartutako komunitate eta pertsonak) dokumentazio eta informazioaren azterketa biltzen du; azterketa hori **kanpoko alderdi batek** egiten du, erakunde batek CHS betetzeko moduari buruzko probak biltzeko.

- **Ziurtapena** egiaztapen independente batean oinarritzen da, CHS erakunde baten politika, sistema eta jardunetan modu koherentean islatzen eta aplikatzen dela adierazten duen berme publiko independente, objektibo eta inpartziala (hots, "ziurtagiri" bat) nahi duten erakundeei zuzenduta dago. Gaur egun, zeregin hori betetzeko onartuta dagoen erakunde bakarra **Humanitarian Quality Assurance Initiative (HQAI)**⁹ da.

3.2. Grand Bargain

Grand Bargain Munduko Goi-bilera Humanitarioaren ondorioz sortutako tresna bat da, sistema humanitarioak beti funts-eskasia duela jakitun izanik¹⁰, mota guztietako emaitzen aldetik baliabideen erabilera hobean ñabardura jartzen duena. Horretarako hamar konpromiso ezartzen ditu, horietako bakoitzari emaitzen eta erakunde humanitarioen beste konpromiso batzuk gaineratuz.

⁸ <https://www.chsalliance.org/>

⁹ <http://hqai.org/>

¹⁰ 2016an, Nazio Batuen deien % 40 estali gabe geratu ziren.

Ondoren, lankidetzaren deszentralizatutik finantzatzeko den ekintza humanitarioaren kalitatea hobetzeko balizko esparru estrategiko bat aurkezten da. Grand Bargainen ezarritako konpromisoetako batzuk lankidetzaren deszentralizatuaren ohiko ahulezietako batzuekin identifikatzen dira zuzenean.

Grand Bargainen konpromisoen laburpena¹¹		Kontu-ematea eta lankidetzaren deszentralizatua
1. Gardentasun handiagoa	<p>Funtsen trazabilitatea ikustea emailaetatik eraginpeko pertsonetarako, datu irekien estandar partekatuen inplementazioaren eta plataforma digital komunen erabilaren bitartez.</p> <p>GKE eta emailaek konpromisoa hartzen dute datuak garaiz argitaratzeko, modu gardan eta harmonizatuan, plataforma digitalen eremuan aurrerantz egiteko, eta eragile guztiei datuak eskuratu eta argitaratu ditzaten laguntza emateko.</p>	<p>Lankidetzaren deszentralizatuaren finantzaketa humanitarioaren jarraipena egitea zaila da gaur egun.</p> <p>Maila deszentralizatuan, borondate politikoaz gain, beharrezkoa da giza baliabideek ekintza humanitarioan prestakuntza espezializatua izatea.</p> <p>Gardentasunik gabe, kontu-ematea, zentzu hertsian hartuta ere, bideraezina da.</p>
2. Laguntza handiagoa ematea tokiko eragileei eta eragile nazionaleri: "lokalizazioa"	<p>Azpimarratzen du tokiko eragileekin hartutako konpromisoa lankidetzaren harreman batean, euren gaitasunak indartzeko helburuarekin.</p> <p>GKE eta emailaek konpromisoa hartzen dute urte anitzeko finantzaketa hobetzeko tokiko erakunde-gaitasunak hobetzeko xedez (prestakuntza, erantzuna eta gaitasunen koordinazioa), garapen-eragileekin lankidetzaren jardunez.</p>	<p>Urte anitzeko finantzaketa-aukerak eta tokiko eragileak aztertu beharko liriateke lankidetzaren deszentralizatutik, Diru-laguntzei buruzko Legearen esparruan.</p>
3. Eskudirutan oinarritutako erantzunen erabilera eta koordinazioa areagotzea (Cash transfer)	<p>Eskudirutan oinarritutako erantzunak aukeratzat hartuko dira erantzunetan. Ez ditu beharrezko guztiak estaltzen eta beste laguntza mota batzuekin osatu behar da.</p> <p>GKE eta emailaek eskudirutan emandako laguntzaren kostuak, onurak eta inpaktuak berresteko beharrezko neurriak hartzeko konpromisoa hartzen dute.</p>	<p>Material-bidalketa errepikakorra gaintzen hasi behar da eta soilik erabat beharrezkoa denean erabili behar da, eta balio erantsi dutela frogatu duten beste tresna batzuk erabili behar dira, adibidez eskudirutan oinarritutako erantzunak, beste jardun mota batzuekin osatuta.</p>
4. Bikoiztasun eta kudeaketa-gastuak murriztea	<p>Horrek kostuak murriztuko ditu eta eraginpeko pertsonen zuzenean bideratutako funtsen proportzioa handituko du.</p> <p>GKE eta emailaek teknologia egokiak erabiltzeko konpromisoa hartzen dute, laguntza-bidalketan eraginkortasuna hobetzeko eta informazioa harmonizatu eta partekatzeko.</p> <p>Kostuak murriztea prozedurak hobetuz.</p>	<p>Illo horretan, eragile deszentralizatuen arteko eta gobernu zentralarekiko (OAH-AECID) koordinazioa eta osagarritasuna lortu beharko liriateke.</p>

¹¹ Dokumentu osoa, ingelesez, eskuragarri dago honako helbide honetan: https://reliefweb.int/sites/reliefweb.int/files/resources/Grand_Bargain_final_22_May_FINAL-2.pdf

<p>5. Premia komun eta inpartzialen balioespenak sustatzea</p>	<p>Orain arte ildo horretan ahaleginak egin diren arren, oraindik defizit garrantzitsua dago. Beharrianak identifikatzeko prozesuak koordinatua, lankidetzan egindakoa eta erabat gardena izan behar du, datuen azterketa eta ondorengo lehenespen eta erabaki-hartzea argi bereiziz.</p> <p>GKE eta emaileek krisi bakoitzaren beharrianen identifikaziorako metodologia bakarra, osatua, sektore artekoa eta inpartziala eskaintzeko urratsak egiteko konpromisoa hartzen dute, metodologia horrek erabaki estrategikoen berri emateko.</p>	<p>Bermatu behar da aurkeztutako proiektuen beharrianen balioespenak OCHA, IASC, kluster-sistema eta abarren parte-hartzearekin egindako jardun komunetan oinarritzen direla, eta irizpide humanitariotan oinarritzen den proiektu horien balioespen objektiboa lehen urrats bat da.</p>
<p>6. “Partaidetzaren iraultza”: eraginpeko pertsonak erabakiak hartzeko garaian sartuz</p>	<p>Erantzun humanitarioa garrantzitsua, eraginkorra, efizientea eta denboran egokia izateko, eraginpean hartutako herriak barnean hartu behar ditugu, gure erabakietan pertsona kalteberenak barnean hartuz –generoa, adina, talde etnikoa, hizkuntza eta beharrian bereziak kontuan izanik–.</p> <p>GKE eta emaileek eraginpeko pertsona eta komunitateekiko konpromisoa eta kontu-ematea ziurtatzeko mekanismoak hobetzeko konpromisoa hartzen dute.</p> <p>Emaileak finantzaketa malgua emateko konpromisoa hartzen dute, eta GKEek konpromisoa hartzen dute erantzun humanitarioko plan guztiek eraginpeko komunitateen kontsiderazioak eta horien azterketa barnean har ditzaten.</p>	<p>Funtsezko Arau Humanitarioaren 3., 4. eta 5. konpromisoak betetzen direla zaintzea eta finantzatu beharreko proiektuak lantzerakoan parte-hartzea bermatzea.</p> <p>Deialdi publikoetan parte hartzen duten GKEek euren formulazioetan sartu behar dituzte eraginpeko herrien parte-hartzerako (proiektuen ziklo osoan, diagnostikoak eta identifikazioak barne) eta kontu-ematerako aurreikusita dauden mekanismoak, eta proposamenean balioespenean kontuan izan beharreko irizpide garrantzitsua izan beharko luke.</p>
<p>7. Laguntza areagotzea urte anitzeko plangintzaren eta finantzaketaren alorrean</p>	<p>Urte anitzeko plangintza eta finantzaketak administrazio-kostuak murrizten ditu eta erantzuna hobeto bideratzen du.</p> <p>GKE eta emaileek konpromisoa hartzen dute urte anitzekoa, lankidetzakoa eta malgua izango den plangintza handitzeko, hark eraginkortasun eta efizientzian dituen inpaktuak dokumentatzeko, eta egiten diren ahaleginak sendotzeko, eragile humanitarioek eta garapenerakoek beharrianen eta arriskuen azterketak partekatzeke.</p>	<p>Alderdi hori sartzea krisi kronikoan dauden edo iraupen luzekoak diren proiektuetarako finantzaketan.</p>
<p>8. Ekarpen “finalistak” murriztea (earmarking)</p>	<p>Finantzaketa malgu batek erantzun azkarragoa errazten du eta erabaki-organoak –eraginpeko pertsonak, errefuxiatuak hartzen dituzten estatuak eta emaileak– sendotzen ditu.</p>	<p>Gai hori sakon landu behar da, Estatuan dauden diru-laguntzetarako legeen eta mekanismoen mugapenak kontuan izanik.</p>

	<p>Finantzaketa malgu batek emailea-lurralde kate osoan kontu-ematea eskatzen du.</p> <p>GKE eta emaileek konpromisoa hartzen dute ekarpen "ez finalistei" eta "zertxobait finalistei" buruz informatzeko modurik eraginkor eta efizienteena ezartzeko, eta ekarpen "finalistak" murrizteko.</p> <p>Erakundeek gardenak izateko, emaileekin erregulartasunez informazioa partekatzeko eta finantzaketa "ez finalista" edo "zertxobait finalista" agerikoagoa izateko konpromisoa hartzen dute.</p>	
<p>9. Justifikatzeko baldintzak eta txostenak bateratzea eta sinplifikatzea</p>	<p>Justifikatzeko baldintzak handituz joan dira denboraren joanarekin. Baliabideen erabilera efizienteagoa ahalbidetuko duen justifikatzeko metodologia funtsezko eta kualitatiboa ziurtatzeko interes berezia dago.</p> <p>GKE eta emaileek konpromisoa hartzen dute txostenak aurkezteko betekizunak sinplifikatu eta bateratzeko eta elkarrekin terminologia komuna erabakitzeko, txostenen funtsezko betekizunak eta egitura komuna identifikatzeko, informaziorako sarbidea hobetzeko eta haren kalitatea hobetzeko.</p>	<p>Lankidetzaren deszentralizatua definitzen duten ezaugarrietako bat justifikatzeko betekizunak eta txostenak ez bateratzea da. Autonomia Erkidego eta toki-erakunde bakoitzak bere justifikatzeko mekanismoak garatzen ditu.</p> <p>Eragile deszentralizatuen eta esku-hartzaileen foro komunak ezartzea konpromiso honetan aurrerantz egiteko funtsezkoa da.</p>
<p>10. Eragile humanitarioen eta garapeneko eragileen arteko konpromisoa sustatzea</p>	<p>Gure lana hobetzeko bi eragileek lankidetzan jardun behar dugu.</p> <p>GKE eta emaileek konpromisoa hartzen dugu epe luzerako beharrezan humanitarioak murrizteko egungo baliabideak eta gaitasunak erabiltzeko, GJH betetzen laguntzeko helburuarekin. Prebentzio, prestakuntza eta murrizketa lana nabarmen handitzeko erreperazioa hobetzeko, hemen gobernu nazionalak eta sektore pribatua bilduz; errefuxiatuentzat, barneko desplazatuentzat eta abar iraungo duten irtenbideetan inbertitzeko; estatu ahuletan erresilientzia indartzeko lan egiteko; arriskuen azterketa bateratua egiteko; eta gaitasunak handitzen dituzten eta baliabide osagarriak ematen dituzten aliantza berriak bultzatzeko.</p>	<p>Lankidetzaren eragile mota desberdinen artean informazioa eskualdatzeko inplikazioak, eta, hala badagokio, elkarren arteko kontu-ematea.</p>

Ikusteko dago lankidetzaren deszentralizatuak zer erabakitzen duen eta Grand Bargain eta hark garatzen dituen tresnak bere gain hartzen ote dituen, horrek ekar ditzakeen zailtasun praktikoei aurre egiteko. Interes politikorik gabe, erronka hori ezin izango da lortu.

Bibliografía

OCDE, 2008. *Garapenerako laguntzaren eraginkortasunari buruzko Pariseko Deklarazioa eta ACCRAko Ekintza Programa*. <http://www.oecd.org/dac/effectiveness/34580968.pdf>

OCDE, 2011. *Garapenerako Lankidetzaren Eraginkortasunerako Busango Aliantza*. <http://www.oecd.org/dac/effectiveness/49650200.pdf>

Oxfam Intermon, 2012. *Busango gakoak: Garapenerako Lankidetzaren Eraginkorrerako Munduko Aliantzaren hurrengo urratsak*. https://www.oxfamintermon.org/sites/default/files/documentos/files/Informe_oxfam_busan_eficacia_ayuda_cooperacion.pdf

ALNAP, 2013. *Ekintza Humanitarioa Ebaluatzeko Gida Pilotua*. <https://www.alnap.org/system/files/content/resource/files/main/eha-pilot-alnap-2013-es.pdf>

ALNAP, 2016. *Ekintza Humanitarioa Ebaluatzeko Gida*. <https://www.alnap.org/system/files/content/resource/files/main/es-alnap-eha-guide-2016.pdf>

ANDRAS DERZSI-HORVATH, JULIA STEETS, LOTTE RUPPERT, 2017 *Independent Grand Bargain Report*, GPPI, http://www.gppi.net/fileadmin/user_upload/media/pub/2017/Horvath__Steets__Ruppert__2017__Independent_Grand_Bargain_Report.PDF

OCDE, 1996. *The International Response to Conflict and Genocide: Lessons from the Rwanda Experience*. <https://www.oecd.org/countries/rwanda/50189495.pdf>

CHS Alliance, Group URD eta Proyecto Esfera, 2015. *Funtsezko Arau Humanitarioa kalitatearen eta kontu-ematearen alorrean*. <https://corehumanitarianstandard.org/files/files/Core%20Humanitarian%20Standard%20-%20Spanish.pdf>

WHS, 2016. *The Grand Bargain – A Shared Commitment to Better Serve People in Need*. http://reliefweb.int/sites/reliefweb.int/files/resources/Grand_Bargain_final_22_May_FINAL-2.pdf